



2016KO ERREGE KABALGATA ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

Barañaingo Udalak, Kultura arloaren bitartez, 2016ko Errege Kabalgata antolatzeko helburuz, deialdi hau ezartzen du, **24.900 €**ko diru kopuruarekin, eta honako oinarrien arabera:

1.- XEDEA

2016ko Errege Kabalgatarako ekitaldiak antolatzeko eta burutzeko laguntza ematea Barañaingo udalerrian.

Helburuak:

Barañaingo bizilagunei kultura hurbiltzea eta hiritarren parte-hartzea bultzatzea.

Erregeen Kabalgata eta horren moduko Eguberrietako ospakizun tradizionalak zaintzeko eta antolatzeko interesa duten proiektuei laguntzea.

Barañaingo herri elkarteek kultura jarduerak antolatzen parte har dezaten bultzatzea.

Errege desfileari dagozkion gastu guztiak deialdi honen eta dagokion kontu-sailaren bitartez ordainduko dira. Jarduerak ezin izanen dute Barañaingo Udaleko beste alor eta programen finantzazioa jaso. Udal zerbitzuek eskainitako beste jarduerekin harremana duten edo antzeko ezaugarriak dituzten proposamenek ere ez dute finantziatorik jasoko.

Jarduera guztiak 2016ko urtarrilaren 5ean eta 6an egingen dira.

2.- BETEBEHARRAK

Deialdian parte hartzen ahalko dute irabazi asmorik ez duten erakunde eta elkarteek, Barañainen helbidea dutenek eta Udalaren interesekoak diren zerbitzuak eman edo jarduerak egiten dituztenek. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, elkarteek segidako baldintzak bete beharko dituzte (eta baldintza horiek mantendu diru-laguntza ematen den ekitaldi ekonomiko guztian):

- Elkartearen estatutuetan ezarritakoari jarraiki garatzea jarduerak, esparru soziokulturalean.
- Pertsona juridikoa izatea, legalki eratua eta behar bezala izena emanda egotea Nafarroako Gobernuako Elkartearen Erregistroan eta Barañaingo Elkartearen Udal-erregistroan.
- Betebehar fiskalak eta Gizarte-segurantzakoak egunean edukitzea, eta hori guztia egiaztatzea dagozkion sinestamenduekin (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzak).

Barañaingo Udalarekiko betebeharrak fiskalei dagokionez ofizioz egiaztatuko da hori guztia, behar diren zuzemenei bidez agerrarazita. Era berean, eta diru-laguntza ematea proposatu aurretik, ofizioz egiaztatuko da eskatzaileak ez izatea ordaintzeke zenbatekorik Udalaren diruzaintzan. Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak dagozkion zuzemenei bidez egiaztatuko dira; dena den, ez daudenean derrigortuta betebeharrak horiei dagozkien egiaztapenak aurkeztera adierazpen arduratsuen bitartez egiaztatuko da betebeharrak hura betetzen dutela, II. Eranskinak duen edukiaren gisan.

-Ez izatea aurkezteke aurreko urteetan jasotako diru-laguntzen zenbatekoei dagozkien ordainapenak.

- Barañaingo Udalarekin ez edukitzea sinatuta elkarlanerako hitzarmenik, zerbitzu kontrataziorik edo beste era bateko kontratu edo konpromisorik egitasmoarentzat, zinetarako eskatu baita finantzazioa. Era berean, diru-laguntzarik ez jasotzea Udalaren beste arloetatik jarduera bererako.

3.- ESKABIDEEN AURKEZPENA

Eskabideak Barañaingo Udaleko Herritarrak Hartzeko Bulegoan aurkeztuko dira, **2015eko urriaren 23ko 14:00ak baino lehen**.

Derrigorrezkoa izanen da agiriak erantsitako formularioaren ereduaren arabera aurkeztea.

Agiriak originalak edo konpultsatutako fotokopiak izanen dira. Eskatzaileei 10 eguneko epea emanen zaie, gehienez ere, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aitzina, aurkeztu gabeko agiriak aurkezteko edo egin diren akatsak zuzentzeko. Hala egiten ez bada, epe hori igaro ondoren eskaerari uko egin zaiola ulertuko da.

4.- BALORAZIOA

Kultura Arloko Informazio Batzordeak espedientea aztertuko du eta Tokiko Gobernu Batzarrari proposatuko dio onartu eta diru-laguntzak ordain dituzan, Kultur Arloko zerbitzu teknikoek emandako alde aurreko txostenarekin eta Udaleko Kontu-hartzailetzak alde aurretik fiskalizazioa egin ondoren.

Balorazio Batzordeak honako alderdiak izanen ditu kontuan:

4.1.- Proposaturiko jardueren eta elementu fisikoen kalitatea, kopurua eta originaltasuna (70 puntu). Jarduera bakoitzeko bost puntu emango dira, baita elementu fisiko bakoitzeko ere (karrozak edo antzeko elementuak); eta, gehienez, 70 puntu emango dira.

4.2. Elkarteak edo erakundeak antzeko ekitaldiak antolatzen duen esperientzia eta gaitasuna (30 puntu). Antzeko jarduerak antolatzen duen urtebeteko esperientzia bakoitzeko hiru puntu emango dira; eta, gehienez, 30 puntu.

5.- EMAKIDA

Onartutako aurrekontuari dagokion portzentajea izango da diruz lagunduko den kopurua, eta ez da izango 24.900 € baino handiagoa.

Hala ere, kontuan hartu eta gero jardueraren izaera, entitate eskatzailearen ibilbidea eta sendotasuna eta proposaturiko jarduerak Barañaingo esparruan izan dezakeen eragina, eta organo eskudunak egoki baderitzo, aurrekontuaren % 100eraino iritsi liteke diru-laguntza.

Onartutako aurrekontuaren mugaraino murriztuko da diru-laguntza, hasieran aurreikusitako kostu guztia baino txikiagoa bada azken kostu erreala.

Diru-laguntza eman eta gero, onartutzat joko da interesatuak horren berri hartu eta 10 eguneko epean argi uko egiten ez badio. Eskatzaileak Batzordearen aurrera ager daitezen eskatzen ahalko da, Batzordeak eskatutako edozein argibide eman dezaten.

Emandako zenbatekoa bi epetan ordainduko da (organo eskudunak zehaztutako kasu berezietan izan ezik): emakida eta gero, berehala, % 80. Gainontzeko % 20 jarduera egin eta 6. oinarria bete ondotik.

6.- BETEBEHARRAK

- 1- Onuradunak nahitaez egin beharko ditu jardueraren berezko ekitaldiak, Udalarengandik jaso dituen jarraibideen arabera eta aurkeztutako egitarauari jarraiki; halaber, gertatu daitekeen edozein ez betetzearen arduradun izanen da.
- 2- Jarduera bertan behera geratzeko, ezinbesteko arrazoiak gertatu eta Udalak alde aurretik baimena eman behar du.
- 3- Onuradunek nahitaez eman beharko dute diru-laguntza jaso duen jarduera egin bitartean izandako edozein gertakariren berri, hauek gertatu bezain laster.
- 4- Jardueraren zabalkuntza egitea derrigorrezkoa izanen da, eta bertan aipatu beharko da Barañaingo Udaleko Kultura arloaren laguntza jaso duela. Udalaren eta Kultura Etxearen logotipoak jarri beharko dira (Kultura Etxean eskatu behar dira).
- 5- Jardueraren txostena, edukia eta zein modutan egin den, eta balantze ekonomikoa (gastuak eta sarrerak) **2016ko otsailaren 19a** baino lehen aurkeztu beharko dira, Barañaingo Udalaren Herritarrak Hartzeko Bulegoan (Udaletxean).
- 6- Jarduera egin bitartean izandako gastuen egiaztagiriak edo horien fotokopia konpulsatuak aurkeztu beharko dira. Indarreko legeriarekin bat aurkezten diren fakturek baino ez dute baliorik izanen (ez dira onartuko hartze-agiriak eta justifikatzeko zuzenak ez diren gainerako moduak).

Deialdi honetako oinarriren bat betetzen ez bada, edo txostena adierazitako epeetan aurkezten ez bada, organo eskudunak diru-laguntza baliogabetu eta emandako zenbatekoak itzultzeko eskatzen ahalko du.

7.- EZ BETETZEA

Deialdi honek men eginen die agiri honetan jasotako oinarriei, eta, bertan aurreikusten ez den orotan, ondoko legeetan xedatutakoari: diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, eta, osagarri gisa, Aurrekontuari buruzko Lege Orokorra, Estatuko araudia, diru-laguntzei dagokienez.

8.- HELEGITEAK

Oinarri hauen eta horiek betearazteko egintzen aurka ondoko errekurtsio hauetakoren bat paratzen ahalko da:

1.- Jakinarazpena eman eta hurrengo hilabetean zehar, nahi izanez gero, Berraztertze errekurtsioa, hori gauzatu duen Udaleko organoaren aurrean (30/1992 Legea, azaroaren 25ekoa, eta 4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koak, aldatutakoa). Berraztertze errekurtsioa aurkezten bada, ezin dira ez gora jotzeko errekurtsioa ez administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri, lehendabizikoa ebatzi edo ustez atzera bota arte. Berraztertze errekurtsioaren aurka ezin izanen da berriz errekurtsio hori aurkeztu.

2.- Jakinarazpena eman eta hilabeteko epean, nahi izanez gero, Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean (6/1990 Legea, uztailaren 2koa). Errekurtsio hori aurkezten bada, ezin izanen da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri gora jotzeko errekurtsioa espresuki ebatzi arte edo ustez atzera bota arte.

3.- Bi hilabeteko epean, jakinarazpena eman eta hurrengo egunetik aitzina, Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, jurisdikzio horretako organo eskudunaren aurrean (29/1998 Legea, uztailaren 13koa).

ANEXO I

I. ERANSKINA

CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA LA REALIZACIÓN DE LAS ACTIVIDADES DE LA CABALGATA DE REYES DE 2016		2016KO ERREGE KABALGATAKO JARDUERAK ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA
---	---	--

FICHA PARA PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES



ESKAERAK AURKEZTEKO FITXA-ORRIA

ASOCIACIÓN / ENTIDAD / ORGANISMO RESPONSABLE DE LA ACTIVIDAD <u>Nombre legal completo</u>	JARDUERAREN ARDURADUNA DEN ELKARTEA / ENTITATEA / ERAKUNDEA <u>Izen legala osorik</u>
.....
NIF	IFZ
.....
<u>Datos bancarios</u>	<u>Banku-datuak</u>
Entidad bancaria / <u>Banketxea</u>	Sucursal / <u>Sukurtsala</u>
.....
Calle / <u>Kalea</u>	Nº / <u>Zk.</u>
.....
Cuenta bancaria nº	<u>Banku-kontuaren zk.</u>
.....

Nombre y apellidos	<u>Izen-deiturak</u>
.....
con DNI	<u>NAN</u>
.....
declaro que las informaciones contenidas en este dossier son exactas.	<u>Datu horien jabe naizen honek aitortzen dut txosten honetan jasotako informazioa egia dela.</u>
Cargo en el proyecto presentado	<u>Aurkeztutako proiektuan dudan kargua</u>
.....
Dirección	<u>Helbidea</u>
.....
Teléfonos / <u>Telefonoak</u>	<u>Fax / Faxa</u>
.....
E-mail / <u>e-posta</u>	<u>Firma / Sinadura</u>
.....	
Fecha/ <u>Data</u>	

1.- ASPECTOS GENERALES

1.1.- Enumeración y descripción física de cada una de las actividades y de los elementos físicos (carrozas etc.) utilizados en cada actividad propuesta.

1.....
.....
2.....
.....
3.....
.....
4.....
.....
5.....
.....
6.....
.....
7.....
.....
8.....
.....
9.....
.....
10.....
.....
11.....
.....
12.....
.....
13.....
.....
14.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

1.- ALDERDI OROKORRAK

1.1.- Jardueren zerranda eta jarduera bakoitzean erabiliko diren elementuen zerranda (Karrozak eta abar) eta deskribapen fisikoa.

1.2.- Señala los años de experiencia de la entidad en la organización de este programa de actividades o similares.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2.- ASPECTOS ECONÓMICOS

2.1.- Presupuesto por conceptos de la actividad o programa.

1.2.- Adierazi zenbat urteko eskarmentua duen elkarteak honako jardueren -edo antzekoen- programa honen antolakuntza lanetan.

2.- ALDERDI EKONOMIKOAK

2.1.- Jarduerari edo programari dagokion aurrekontua, kontzeptuka adierazita.

CONCEPTOS / KONTZEPTUAK	GASTOS / GASTUAK	INGRESOS/DIRU-SARRERAK

TOTALES / GUZTIRA _____

2.2.- Declaración de otras ayudas o subvenciones para el proyecto.

2.2.- Proiektuarentzat jaso diren gainontzeko diru-laguntzen adierazpena.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2.3- TOTAL DE LA SUBVENCIÓN SOLICITADA (en EUROS).

2.3- ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA GUZTIRA (EUROtan).

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ANEXO II / II. ERANSKINA

DECLARACION RESPONSABLE

Atención: Rellenar con letra mayúscula.

ADIERAZPEN ARDURATSUA

Erne!: Letra larriz bete.

D./Doña.

Jauna / Andrea:

--

DNI núm.:

zenbakidun NAN

actuando en representación de la ASOCIACIÓN o ENTIDAD

ondoko ELKARTE edo ENTITATEaren ordezkari gisa

--

(con NIF núm.

zenbakidun IFZ)

MANIFIESTA (marcar lo que proceda):

Que la entidad que representa no está obligada a presentar declaraciones o documentos referidos a cumplimiento de obligaciones con Hacienda Foral y con la Seguridad Social.

Que la entidad que representa se encuentra inscrita en el Registro de Asociaciones de Gobierno de Navarra, no habiendo sufrido modificación alguna la documentación presentada en dicho registro.

Que la entidad que representa se encuentra inscrita en el Registro de Asociaciones del Ayuntamiento de Barañáin, no habiendo sufrido modificación alguna la documentación presentada en dicho registro.

Y para que así conste ante el Ayuntamiento de Barañáin, a los efectos de la solicitud de subvenciones en el ejercicio 2015 a organismos, instituciones o asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollan actividades en el área de la acción social, firma la presente,

En Barañáin a ____ de _____ de 2015.

ADIERAZTEN DUT (markatu dagokizuna):

Ordezkatzen dudan entitatea ez dagoela behartuta Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagozkien aitortpen edo agiriak aurkeztera.

Ordezkatzen dudan entitateak Nafarroako Gobernuko Elkartearen Erregistroan izena emanda duela, eta erregistro horretan aurkeztutako dokumentazioak ez duela aldaketarik izan.

Ordezkatzen dudan entitateak Barañaingo Udaleko Elkartearen Erregistroan izena emanda duela, eta erregistro horretan aurkeztutako dokumentazioak ez duela aldaketarik izan.

Eta horrela jasota gera dadin Barañaingo Udalean, gizarte ekintzaren esparruan jarduerak antolatzen dituzten irabaz asmorik gabeko erakunde, instituzio edo elkartearen 2015eko ekitaldiko diru-laguntzatarako eskaeren ondorioetarako, sinatzen dut honako agiri hau,

Barañáin, 2015eko _____ ren ____ (a).

Firma de la persona declarante / Adierazpen egilearen sinadura

--